

2008KO APIRILAREN 7KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 7 DE ABRIL DE 2008

Akta zenbakia: 4/2008
Bilera data: 2008-04-7
Bilera mota: Ezohiko osoko bilkura
Deialdia: Lehenengoa
Ordu: 19:00- 19:25
Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Acta nº: 4/2008
Fecha: 7-04-2008
Tipo de reunión: Pleno Extraordinario
Convocatoria: Primera
Hora: 19:00 – 19:25
Lugar: Salón de plenos del Ayuntamiento

Bertaratutakoak:
Alkatea: Miguel Izaguirre Recondo

Reunidos:
Alcalde: Miguel Izaguirre Recondo

Zinegotziak:
 Miren Quintas Etxeberria
 Mertxe Zapiain Intxausti
 Hermenegildo Gonzalez Moran
 Consuelo Frutos Gonzalez
 Jose Guirado Novo
 Nerea Sayavera Urchueguia
 Maria Isabel Vaquero Montero
 Miren Martiarena Barkaiztegui
 Gaspar Esnaola Agesta
 Juan Ignacio Mendizabal Eguia
 Gotzone Astiasaran de Miguel

Concejales:
 Miren Quintas Etxeberria
 Mertxe Zapiain Intxausti
 Hermenegildo González Morán
 Consuelo Frutos González
 José Guirado Novo
 Nerea Sayavera Urchueguía
 Maria Isabel Vaquero Montero
 Miren Martiarena Barkaiztegui
 Gaspar Esnaola Agesta
 Juan Ignacio Mendizábal Eguia
 Gotzone Astiasaran de Miguel

Bitarteko idazkaria:
 Nagore Alkorta Elorza


Secretaria interina:
 Nagore Alkorta Elorza

Aztergaiak:

- 1.- Kutzako kontseilari ordezkaria izendatzea
- 2.- Mertxe Zapiain lanaldi osoz liberatzea
- 3.- Obra arduraduna ordezkatzeari

Orden del día:

- 1.- Designación de un Consejero Delegado de Kutxa
- 2.- Liberación a jornada completa de Mertxe Zapiain
- 3.- Sustitución del responsable de obras



2008KO APIRILAREN 7KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 7 DE ABRIL DE 2008

• Urgentziazko jotzea

Miguel Izaguirre alkateak hartu du hitza, eta adierazi du badela gai zerrendan sartu ez den gai bat, Gipuzkoako eta Donostiako Aurrezki Kutxarako Urnietako Udalaren kontseilari nagusia eta ordezkoa izendatzea. Alkateak adierazi du nahaste batengatik Urnieta jada parte den Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxako elkarteko ordezkariak bakarrik hitz egin zutela Ogasuneko informazio batzordean. Urnietako Udalaren ordezkaria izendatzeak presa dauka; izan ere, izendapen horrek 2008ko apirilaren egingo den Eratze Batzar Nagusitik aurrera izango du eragina.

Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren gaineko Araudiak dioenez, gai bat gai zerrendan sartu eta baliozkoa izan dadin beharrezkoa da lehenago urgentziazko jotzea.

Alderdi sozialistako bozeramaile Hermenegildo Gonzalezek adierazi du ez dagoela ados gisa honetako izendapenak egiteko moduarekin, eta nabarmendu du maiz ari direla halakoak gertatzen.

Eztabaidaren ostean, alkateak botazioa egitea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 12 (UDA 3, PSE-EE/PSOE 4, EAJ-PNV 3, ANV/EAE 2)

Kontra: 0

Abstentzioak: 0

▪ Pronunciamiento sobre la urgencia

Toma la palabra el alcalde Miguel Izaguirre señalando que hay un asunto, el referente a la designación de un Consejero General de la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián y su suplente en representación del Ayuntamiento de Urnieta, que no se ha incluido en el orden del día. Señala el alcalde que, debido a una confusión, en la Comisión Informativa de Hacienda sólo se trató el tema del representante de la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián de la Agrupación de la que forma parte Urnieta. Es la designación del representante del Ayuntamiento de Urnieta el que urge, ya que su nombramiento tendrá efectos a partir de la Asamblea General Constituyente que se celebrará en abril de 2008.

Según lo señalado en el reglamento de organización, funcionamiento y régimen jurídico de las entidades locales, es necesario, para la inclusión de un asunto en el orden del día y así sea válido el acuerdo que se adopte la previa declaración de urgencia.

El portavoz del partido socialista Hermenegildo González muestra su disconformidad con el modo de proceder ante este tipo de nombramientos, recalcando que se van repitiendo a menudo.

Tras el debate, el alcalde ha propuesto someterlo a votación, con el siguiente resultado:

A favor: 12 (UDA 3, PSE-EE/PSOE 4, EAJ-PNV 3, ANV/EAE 2).

En contra: 0

Abstenciones: 0



2008KO APIRILAREN 7KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 7 DE ABRIL DE 2008

Botazioaren ostean, Udalbatzak aho batez hartu du honako

Tras la votación, el Pleno por unanimidad de los asistentes ha adoptado el siguiente

AKORDIOA

Lehenengoa.- Onartzea Gipuzkoako eta Donostiako Aurrezki Kutxan Urnieta Udalaren ordezkari izango diren kontseilari nagusiaren eta ordezkaren izendapena gai zerrendan sartzea.

2.- Mertxe Zapiain lanaldi osoz liberatzea

Gai hau beste baterako gelditu da.

3.-Obra arduraduna ordezkatzea

Miguel Izaguirre alkateak hartu du hitza, eta Langileriaren Informazio Batzordean aztertutako proposamenaren berri eman du. Kontuan hartuta Antonio Santanak betetzen zuen lanpostua hutsik gelditu dela, zerbitzua berrantolatu eta lanpostua nola bete erabaki arte, gehienez ere 2008ko abenduaren 31 arte, Isidro Alcain obren lantaldekoa obra arduradun izendatzea proposatu da, soldatan 126,99 euroko berariazko osagarria igota.

ANVko bozeramaile Iñaki Mendizabalek galdetu du zein pauso emateko asmoa dagoen obren lantaldean behar diren langileak kontratatzeko.

Alkateak botazioa egitea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

ACUERDO

Primero.- Aprobar la inclusión en el orden del día del asunto referente a la designación de un Consejero General de la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián y su suplente en representación del Ayuntamiento de Urnieta..

2.- Liberación a jornada completa de Mertxe Zapiain


Se ha dejado el asunto sobre la mesa.

3.- Sustitución del responsable de obras

Toma la palabra el alcalde Miguel Izaguirre para dar cuenta de la propuesta tratada en la Comisión Informativa de Personal. Teniendo en cuenta que la plaza ocupada por Antonio Santana ha quedado vacía, mientras se decida como cubrir esa plaza tras la reorganización del servicio y como máximo hasta el 31 de diciembre de 2008, se propone al miembro de la Brigada de Obras Isidro Alcain como encargado de obras con una subida salarial en el complemento específico de 126,99 €.

El portavoz de ANV Iñaki Mendizábal pregunta sobre los pasos que se pretenden seguir en cuanto a la contratación del personal necesario de la brigada de obras.

El alcalde ha propuesto someterlo a votación, con el siguiente resultado:



2008KO APIRILAREN 7KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 7 DE ABRIL DE 2008

Alde: 12 (UDA 3, PSE-EE/PSOE 4, EAJ-PNV 3, ANV/EAE 2)

A favor: 12 (UDA 3, PSE-EE/PSOE 4, EAJ-PNV 3, ANV/EAE 2).

Kontra: 0

En contra: 0

Abstentzioak: 0

Abstenciones: 0

Ikusirik 2008ko apirilaren 3an egindako Kontratazio eta Langileriaren Informazio Batzordean eztabaidatu eta informatu zela gai honi buruz.

Visto que en las Comisiones Informativa de Contratación y Personal celebrada el día 3 de abril de 2008 se debatió e informó sobre este tema.

Botazioaren ostean, Udalbatzak aho batez hartu du honako

Tras la votación, el Pleno por unanimidad de los asistentes ha adoptado el siguiente

AKORDIOA

ACUERDO

Lehenengoa.- Hirigintza Saileko peoiari soldata 126,99 euro igotzea (berariazko osagarria), Urnietako Udalaren lanpostuen zerrenda hasieran aldatuz, espedienteen agertzen den bezala.

Primero.- Aprobar una subida salarial en el complemento específico de 126,99€ para el pcción asignado al área de urbanismo con la correspondiente modificación inicial de la Relación de Puestos de Trabajo del Ayuntamiento de Urnieta, que consta en el expediente.

Bigarrena.- Hasieran onartutako akordio hau 15 lanegunean argitaratzea informazio publikorako, GAOn iragarki bat jarrita, interesatuek aztertu eta Udalbatzari erreklamazioak aurkezteko modua izan dezaten.

Segundo.- Publicar dicha aprobación inicial para información pública durante el plazo de 15 días hábiles, mediante anuncio insertado en el BOG, a fin de que los interesados puedan examinarlo y puedan presentar reclamaciones al Pleno.

Baldin eta informaziorako epe hori igarobada eta alegaziorik izan ez bada, akordioa behin betikotzat joko da, beste akordio bat hartu beharrik izan gabe.

Si transcurrido el plazo de información expresado no se hubiera presentado alegación alguna, se tendrá por aprobada definitivamente, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.



2008KO APIRILAREN 7KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 7 DE ABRIL DE 2008

1.- Kutzako kontseilari ordezkariak izendatzea Urnieta Udalaren ordezkari gisa eta Urnieta jada parte den udalerrien elkarteko ordezkari gisa.

Miguel Izaguirre alkateak hartu du hitza, eta Javier Carcedo eta Ramon Goikoetxea izendatzea proposatu du Urnieta Udalaren ordezkari gisa Gipuzkoako eta Donostiako Aurrezki Kutzako kontseilari nagusi eta ordezkari izateko. Halaber, Arantxa Gonzalez proposatu du Orio, Ordizia, Segura eta Urnieta osatzen duten udalerrien elkartearen ordezkari gisa Gipuzkoako eta Donostiako Aurrezki Kutxen kontseilari nagusi izateko.

Alderdi sozialistako bozeramaile Hermenegildo Gonzalezek hartu du hitza, eta adierazi du beraiek ez dakitela nola izendatu diren kontseilari ordezkari lanpostua betetzeko hautagaiak. Udaleko talde sozialistak Consuelo Frutos eta Nerea Sayavera zinegotziak proposatu ditu, hurrenez hurren, Urnieta Udalaren ordezkari gisa Gipuzkoako eta Donostiako Aurrezki Kutxarako kontseilari nagusi eta ordezkari izateko.

ANVko bozeramaileak hartu du hitza, eta adierazi du ez duela ulertzen zergatik ez den komunikaziorik izan izendapen horien inguruan.

Berriz ere alderdi sozialistako bozeramaileak hartu du hitza, eta adierazi du ez dagoela konforme egiten ari diren gauzekin, eta ez beraiek ez ANVkoak ez dituztela informatu onartu nahi den gai horren inguruan.


1.- Designación de Consejero Delegados de Kutxa en representación del Ayuntamiento de Urnieta así como en representación de la Agrupación de municipios del que forma parte el municipio de Urnieta.

Toma la palabra el alcalde Miguel Izaguirre para proponer la designación de Javier Carcedo y Ramón Goikoetxea, como Consejero General y suplente respectivamente, de la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián en representación del Ayuntamiento. Así mismo, propone la designación de Arantxa González como Consejera general de la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián en representación de la Agrupación compuesta por los municipios de Orio, Ordizia, Segura y Urnieta.

Toma la palabra el portavoz del partido socialista Hermenegildo González para señalar que ellos no se han enterado de cómo ha ido el proceso de designación de los candidatos a ocupar el puesto de Consejeros delegados. El grupo municipal socialista propone a las concejalas Consuelo Frutos y a Nerea Sayavera, como Consejera General y suplente respectivamente, de la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián en representación del Ayuntamiento de Urnieta.

Toma la palabra el portavoz de ANV señalando que no entiende el por qué de la falta de comunicación en relación a estos nombramientos.

Toma de nuevo la palabra el portavoz del partido socialista para señalar que no está conforme con las actuaciones que se están llevando a cabo y que ni ellos ni los representantes de ANV han sido informados de lo que se quiere aprobar.



2008KO APIRILAREN 7KO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO DEL 7 DE ABRIL DE 2008

Udal hautagaiak izendatzea

Lehenik eta behin, udal taldearen proposamena bozkatu dute, eta gero alderdi sozialistarena.

a.- UDAREN proposamena.- Javier Carcedo eta Ramon Goikoetxea izendatzea Gipuzkoako eta Donostiako Aurrezki Kutxarako kontseilari nagusi eta ordezkoko gisa.

Alkateak botazioa egitea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 6 (UDA 3, EAJ-PNV 3)

Kontra: 0

Abstentzioak: 6 (PSE-EE/PSOE 4, ANV/EAE 2)

b.- Udaleko talde sozialistaren proposamena.- Consuelo Frutos eta Nerea Sayavera izendatzea Gipuzkoako eta Donostiako Aurrezki Kutxarako kontseilari nagusi eta ordezkoko gisa.

Alkateak botazioa egitea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 4 PSE-EE/PSOE

Kontra: 0

Abstentzioak: 8 (UDA 3, EAJ-PNV 3, ANV/EAE 2)

Designación de candidatos municipales

Se ha votado en primer lugar la propuesta del equipo de gobierno y a continuación la del partido socialista.

a.- Propuesta de UDA - Designación de Javier Carcedo y Ramón Goikoetxea, como Consejero General y suplente respectivamente, de la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián -

El alcalde ha propuesto someterlo a votación, con el siguiente resultado:

A favor: 6 (UDA 3, EAJ-PNV 3)

En contra: 0

Abstenciones: 6 (PSE-EE/PSOE 4, ANV/EAE 2)


b.- Propuesta del grupo municipal socialista - Designación de Consuelo Frutos y Nerea Sayavera, como Consejera General y suplente respectivamente, de la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián

El alcalde ha propuesto someterlo a votación, con el siguiente resultado:

A favor: 4 PSE-EE/PSOE

En contra: 0

Abstenciones: 8 (UDA 3, EAJ-PNV 3, ANV/EAE 2)



**2008KO APIRILAREN 7KO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 7 DE ABRIL DE 2008**

Botazioaren ostean, Udalbatzak kide gehienen aldeko botoarekin hartu du honako

Tras la votación, el Pleno por mayoría de los asistentes ha adoptado el siguiente

AKORDIOA

ACUERDO

Lehenengoa.- Javier Carcedo Alacia (NAN: 30.568.425 E) izendatzea Gipuzkoako eta Donostiako Aurrezki Kutxarako Urnietako Udalaren kontseilari nagusi, eta Ramon Goikoetxea Abadia (NAN: 15.938.671 M) ordezkoko.

Primero: Designar a Javier Carcedo Alacia, con DNI 30.568.425 E, Consejero General de la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián en representación del Ayuntamiento de Urnieta y a Ramón Goikoetxea Abadia con DNI 15.937.671M como su suplente.

Bigarrena.- Hala kontseilari nagusiak nola ordezkokoak betetzen dituzte Kutxaren Estatutueta 18. artikuluan ezarritako baldintzak, eta ez dute 13 eta 19. artikuluan ezartzen diren bateraezintasun eta mugetako bat bera ere.

Segundo: Tanto el designado como su suplente reúnen los requisitos señalados en el artículo 18 de los Estatutos de Kutxa y no se hallan incursos en ninguna de las incompatibilidades o limitaciones establecidas en los artículos 13 y 19 de los mismos.

Hirugarrena.- Akordio hau Gipuzkoako eta Donostiako Aurrezki Kutxari jakinaraztea.

Tercero.- Notificar este acuerdo a la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián

Orio, Ordizia, Segura eta Urnieta udalerriek osatutako elkarterako hautagaia izendatzea.- Arantxa Gonzalez izendatzea Gipuzkoako eta Donostiako Aurrezki Kutxarako kontseilari nagusi, Orio, Ordizia, Segura eta Urnieta udalerriek osatzen duten elkartearen ordezkari gisa.

Designación del candidato de la Agrupación compuesta por los municipios de Orio, Ordizia, Segura y Urnieta. - Designación de Arantxa González como Consejera general de la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián en representación de la Agrupación compuesta por los municipios de Orio, Ordizia, Segura y Urnieta.-

Alkateak botazioa egitea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

El alcalde ha propuesto someterlo a votación, con el siguiente resultado:

Alde: 6 (UDA 3, EAJ-PNV 3)

A favor: 6 (UDA 3, EAJ-PNV 3)

Kontra: 4 PSE-EE/PSOE

En contra: PSE-EE/PSOE 4

Abstentzioak: 2 ANV/EAE

Abstenciones: ANV/EAE 2



**2008KO APIRILAREN 7KO UDALBATZARRAREN AKTA
ACTA DEL PLENO DEL 7 DE ABRIL DE 2008**

Botazioaren ostean, Udalbatzak kide gehienek aldeko botoarekin hartu du honako

Tras la votación, el Pleno por mayoría de los asistentes ha adoptado el siguiente

AKORDIOA

Lehenengoa.- Arantxa Gonzalez izendatzea Gipuzkoako eta Donostiako Aurrezki Kutxarako kontseilari nagusi, Orio, Ordizia, Segura eta Urnieta udalerriek osatzen duten elkartearen ordezkari gisa.

Bigarrena.- Kontseilari izendatuak betetzen dituzten Estatutuetakoko 18. artikuluan ezarritako baldintzak, eta ez du 13 eta 19. artikuluan ezartzen diren bateraezintasun eta mugetako bat bera ere.

Hirugarrena.- Akordio hau Gipuzkoako eta Donostiako Aurrezki Kutxari jakinaraztea.

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairi kez dagoenez, alkateak bukatutzat eman du ezohiko osoko bilkura hau. goiburuan adierazitako eguneko azpiak eta hogeita bostean, eta nik, Urnietako bitarteko idazkariak, hala egiaztatu dut, alkatearen oniritziarekin.

ACUERDO

Primero: Designar a Arantxa González, Consejera General de la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián en representación de la Agrupación compuesta por los municipios de Orio, Ordizia, Segura y Urnieta.-

Segundo: La designada reúne los requisitos señalados en el artículo 18 de los Estatutos de Kutxa y no se halla incurso en ninguna de las incompatibilidades o limitaciones establecidas en los artículos 13 y 19 de los mismos.

Tercero.- Notificar este acuerdo a la Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las siete y veinticinco de la fecha indicada en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Sin.: Nagore Alcorta Elorza
Bitarteko idazkaria,



Sin.: Mikel Izagirre Rekondo
Alkate-lehendakaria,

